

Bakion jaioa, Agurtzane Ormatza Imatz psikologian lizentziatua da. Bere ibilbide profesionalari erreparatuz gero, hainbat eta hainbat lan egindakoa dugu Agurtzane. Besteak beste, irakasle gisa aritzen da, hitzaldiak ematen ditu eta



AGURTZANE ORMAZA

bikoteen arretarako Biko Arloak zentroko kolaboratzailea ere bada. Azken urteetan hainbat komunikabide-tan aritu izan da Ormatza eta bere izena eta izana han eta hemen ezaugarazi ditu, beti ere sexualitateari eta harremanei buruzko gaietan sakonduz eta informazioa emanaz. Hitz jario aberatsekoa, plazerra izan da Agurtzanerekin hizketaldia izatea.

“Jendea kontsultara etortzen da sexu harremanetan egiten duena normala den jakiteko”

Jasone Osoro

Sexu iraultzaz asko hitz egin da baina zalantza daukat. Emakumezkoak gure sexualitatearen jabe al gara?

Lehenengo “Sexu Iraultza” tximinoetatik gizakion gorputz estrukturara eraldatu ginenean eman zen. Momentu horretan emeen klitoria bagina barrutik kanpora aldatu zen, aluan geratu arren. Ondorioz, ugalketa eta plazerra desberdindu egin ziren.

Halere, iraultza inportanteena etortzeko dago: sexuen arteko hitzarmena. Ezberdintasunetan

oinarrirituz elkarbizitzako paktu bat izango da.

Emakumeak sexudunak garen heinean sexualak eta erotikokoak gara. Inor ez da gure jabe, ez eta guri dagokigun ezereen jabe ere. Sexuduna izatea da gure izate sexuala eraikitzea eta hori jaio aurretik eta geroago osatzen da. Erotikoak gara desioa daukagutako eta desio hori ahal eta gustatzen zaigun moduan bideratzen dugulako. Beraz, gu gara gure sexualitatearen jabe, bezekoa dugu, ez da eskubide bat.

Diotenez, emakumezkook sexualitate ez dugu deskubritu. Egin den bakarra, gizonezkoen sexualitateari jarraitzea izan omen da.

Emakumezkoen sexualitateari eta erotikari buruz oso gutxi idatzi da eta idatzi den apurra ez da batere agerian egon, beraz, askorentzako ez da existitu ere egin. Halere, intimitatean gordeta egon bada ere, hor egon da beti. Hori bai, egia da emakume gehienek bere gorputzaz, bere desioaz eta bere beharrez gizonezkoen eskutik ikasi izan dutela. Gizona izan da sarri emakumearen gorputza ukitu duen lehena. Denbora joan ahala konturatu gara baditugula gure modu propioak gorputza bizitzeko, gure desioa garatzeko eta gure burua azaltzeko. Besteengandik ikastea eta besteekin garatzea oso aberasgarria da, baina inportantea da bakoitzak berari dagokion bidea zein den jakitea.

Zer da sexu hezkuntza sana?

Hezkuntza bat non urgentziak, patologiak eta gaixotasunak ez diren ardatza. Non bakoitzaren garapena eta elkarbizitzarako tresnak eraikitzea diren helburuak. Bakoitzak denbora izan dezala bere bidea egiteko, bere bizipenak ulertzeko, beldurrak maneiatzeko, lotsari bidea emateko, kezka adieraz-

“Oraindik ere, beste guztia baino inportanteagoa da hanka tartekoarekin egiten duguna”

teko eta desioak garatzeko. Sexu hezkuntza da sexuen hezkuntza, ez hanka tartekoaz egiten dugu-nari buruzko hezkuntza.

Zer da normala sexuan? Bada ezer anormalik?

Denok dugu itzelezko beharra jakiteko zer dagoen norma barruan eta zer ez. Askok etortzen dira gugana egiten dutena normala den jakiteko, gure irizpidea behar dute askotan baimena jasotzeko. Sexualitatearen bizipenetan ezin dugu esan zer den normala. Norma oso lotuta baitago kulturarekin, momentu historikoarekin eta bakoitzaren biografia eta bizitzen ari den momentuarekin. Horiek guztiek baldintzatuko dute zer egin behar den eta zer ez. Kultura batzutan musuak ahoan ematea nazkagarria da, garai batean masturbazioa patologia bat zen... Askok jota moralak esan behar du zer dagoen ondo eta zer ez. Zientziak zer eta zelan gertatzen den azaldu behar du.

Sexuaren bidez autoestimua ere lantzen da. Masturbazioarekin barne?

Masturbazioaren bidez gorputzaren gozamenen sakontzea lortzen dugu, gorputza ulertzea, desioak garatzea, erlaxatzea, minak baretzea, denbora ondo pasatzea, autonomia lantzea, bestearekin komunikatzea, bestearekin zer nahi dugun esatea, bestearekin intimitatearen konplizitate areagotzea... Ahalmen hori izan eta sentitzen badugu, nola ez gara hobeto sentituko gure buruarekin?



Zure kontsultan ikusitakoaren arabera, gauzak uste beste aldatu dira ala ez?

Bai eta ez. Hau da, gaur egun informazioa ugaldtu egin da eta edozelako informazioa eskura dezakegu erraz. Zientzia mailan aurrerakuntza asko egin dira eta gizartera luzatu dira. Emakumeek eta gizonak gero eta behar gehiago dute elkar ulertzeko. Baina, beste aldetik, informazioa askotan ez da zuzena. Oraindik orain, beste guztia baino inportanteagoa da hanka tartekoarekin egiten duguna eta horrek ekartzen dizkigun arazoak; eredu estetikoak oso indartsuak dira; gazteenganako presioa areagotu egin da... Beraz, ez da erraza buelta ematea hainbat gauzari.

Zein dira kontsulta nabarmenenak?

Ohikoenak bikotekideen arteko ulertu ezinak eta iskanbilak izaten dira. Era berean, desioak ematen dituen gorabeherak indartsu datoz eta baita eszitazio arazoak ere. Askotan oso korapilatuta daude, batak bestea ekartzen eta elikatzen du. Dena zirkularra bihur-tzean da kausa-efektu dinamika apurtuz.

Alfred Kinseyk esaten zuenez, kontrol sexualak indibiduoaren askatasuna mugatzen du. Freudek esanda, desio sexuala erreprimitzeak arazo psikologikoak dakartza.

Desioa eta agresibitatea dira gure bizitzako bi ardatz, gurekin datozenak eta gugandik ateratzen eta bideratzen ditugunak. Gizarte guztiek daukate modu bat horiek "kontrolatzeko", beraz kanpoko kontrola hor egongo da beti eta horri bakoitzak ezartzen dion kontrola gehitu behar zaio. Ikasi behar duguna da zer dagoen bakoitzaren baitan eta dagoen hori modu gozagarri baten ateratzen saiatu, errudun sentitu gabe. Desioaren kasuan, desioaren beste alde bat beti da beldurra eta biek bizi behar dugu. Txanpon berean datoz. Bakoitzak jakin behar du zein den bere desioa eta zerk laguntzen edo oztopatzen duen desio horren garapena.

Gizonak maitasuna eskaintzen du sexua lortzeko eta emakumeak, aldiz, maitasuna bilatzeko eskaintzen du sexua. Topiko bat da edo oraindik orain mantentzen den zerbait?

Ja, ja. Bai eta ez. Oro har gizonak bide batzuk hartzen dituzte desioa garatzeko eta emaku-

"Burua alde batera laga eta gorputzari utzi behar zaio hitz egiten"

meek beste batzuk, nahiz eta gero emakume edo gizon bakoitzak bere estiloa eta bere desioa daukan, askotan konpara ezina besteekin.

Baina eztabaidatu beharrean egiten dugunaz, hobe gure bakoitzak bere bidea topatzea eta zubiak eraikitzea elkartrukea eman dadin. Hizkuntza berri bat sortu behar da. Topikoak erabilgarriak dira alboan daukaguna ulertzeko laguntzen badigute.

Zein da emakumezkoek sexu alorrean eman beharko luketen urratsik inportanteena?

Gure buruari galdetu behar diogu zer nahi dugun, zer den desiratzen duguna. Zintzoak izan behar dugu gure buruarekin. Edozein zalantza edo galdera daukagunean, gure barrutik atera behar da erantzuna, berdin dio erantzun horrek lotsa edo beldurra ematen badigu ere; berdin dio gure moralaren kontrako bada, politikoki zuzenena ez bada, edozein kasutan onartu egin behar dugu, gure geurea delako. Gero, erantzun hori besteekin sakonduko dugu eta horrek izugarritzko pistak emango dizkigu. Azken batean, burua alde batera utzi eta gorputzari utzi behar zaio hitz egiten. Hori izan behar da emakume zein gizonak eman behar duten urratsik garrantzitsuena. **F**

